

# Noaqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1997ko urriak 31

Usurbil, 29. Zenbakia

BETIKO ATSEDENA EMAN IEZU-JAUNA  
TA  
BETIKO ARGIAK ARGIEGIN BEZATE

**Hilerriak lorez  
beteko dira**

## JAIOTZAK

**Haritz Berasategi Eizagirre**  
(1997-10-22)  
(Kaleberri)

## HILDAKOAK



1997-10-16  
**Julian Astigarraga Olaizola**  
56 urte  
Eguzkitzaldea

## EZKONTZAK

**Juan Karlos Balerdi Aburuza (Kalezar)**  
eta  
**Ana Isabel Goitia Zuloaga (Donostia)**  
(1997-10-11)

**Arantxa Iturriondo Trifol (Olarriondo)**  
eta  
**Jose Andrés Vázquez Palomino (Olarriondo)**  
(1997-10-15)

**Inaxio Usarralde Aranzadi (Aginaga)**  
eta  
**Tere Garmendia Altuna (Lazkao)**  
(1997-10-25)

**Garbiñe Muguruza Pikabea (Aginaga)**  
eta  
**Felix Urain Makazaga (Orio)**  
(1997-10-25)

## MEZA ORDUAK

Igande edo jai bezperatan

**18.30etan** Kalezarko monjetan  
**19.30etan** Aginagako elizan  
**20.00etan** Usurbilgo parrokian

Igande edo jai egunetan

**9.30etan** Zubietako elizan  
**10.30etan** Aginagako elizan  
**10.30etan** Urdaiagako ermitan  
**11.30etan** Usurbilgo parrokian  
**12.30etan** parrokian. Erdaraz

## URRIAREN 13TIK EUSKO TRENBIDEAKEN AUTOBUS ORDUTEGI BERRIA

ASTEGUNETAN						ASTEBURUTAN		
Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia	Donostia	Usurbil	Zarautz
07.40	08.05	08.25	06.45	07.05	07.30	07.30	07.55	08.15
08.00	08.25	08.35**	07.15	07.35	08.00	08.30	08.55	09.15
08.40	09.05	09.25	07.45	08.05	08.30	09.30	09.55	10.15
09.00	09.30	09.40 *	08.15	08.35	09.00	10.30	10.55	11.15
09.40	10.05	10.25	08.45	09.05	09.30	11.30	11.55	12.15
10.40	11.05	11.25	09.20**	09.30	10.00	12.30	12.55	13.15
11.40	12.05	12.25	09.45	10.05	10.30	13.30	13.55	14.15
12.00	12.25	12.35**	10.20*	10.30	11.00	14.30	14.55	15.15
12.40	13.05	13.25	10.45	11.05	11.30	15.30	15.55	16.15
13.00	13.30	13.40 *	11.45	12.05	12.30	16.30	16.55	17.15
13.40	14.05	14.25	12.45	13.05	13.30	17.30	17.55	18.15
14.00	14.30	14.40**	13.20**	13.30	13.55	18.30	18.55	19.15
14.40	15.05	15.25	13.45	14.05	14.30	19.30	19.55	20.15
15.00	15.25	15.40*	14.20*	14.30	15.00	20.30	20.55	21.15
15.40	16.05	16.25	14.45	15.05	15.30	21.30	21.55	22.15
16.40	17.05	17.25	15.20**	15.30	15.55	22.30	22.55	22.15
17.40	18.05	18.25	15.45	16.05	16.30			
18.00	18.30	18.40*	16.20**	16.30	17.00	Zarautz	Usurbil	Donostia
18.40	19.05	19.25	16.45	17.05	17.30	06.45	07.05	07.30
19.00	19.25	19.35**	17.45	18.05	18.30	07.45	08.05	08.30
19.40	20.05	20.25	18.45	19.05	19.30	08.45	09.05	09.30
20.00	20.30	20.40*	19.20*	19.30	20.00	09.45	10.05	10.30
21.00	21.25	21.45	19.45	20.05	20.30	10.45	11.05	11.30
22.00	22.30	22.50	21.15	21.35	22.00	11.45	12.05	12.30
						12.45	13.05	13.30
						13.45	14.05	14.30
						14.45	15.05	15.30
						15.45	16.05	16.30
						16.45	17.05	17.30
						17.45	18.05	18.30
						18.45	19.05	19.30
						19.45	20.05	20.30
						20.45	21.05	21.30
						21.45	22.05	22.30

\*Orioraino bakarrik

\*\*Aiaraino joaten da

\*Oriotik irtetzen da

\*\*Aiatik irtetzen da

## Bai, esan?

- |                          |          |                            |          |
|--------------------------|----------|----------------------------|----------|
| • Udala                  | 37 19 51 | • Taxi geltokia            | 36 21 78 |
| • Udaltzaingoa           | 36 11 12 | • D.Y.A.                   | 46 46 22 |
| • Anbulategia            | 36 20 13 | • Gurutze Gorria           | 27 22 22 |
| • Udarregi ikastola      | 36 12 16 | • Gure Pakea egoitza       | 37 32 28 |
| • Agerialdeko ikastetxea | 36 38 95 | • Gure Elkartea egoitza    | 37 17 51 |
| • Oiardo kiroldegia      | 37 24 98 | • Arrate egoitza           | 36 63 40 |
| • Zumarte musika eskola  | 37 15 94 | • Eusko Tren informazioa   | 47 09 76 |
| • Etumeta euskaltegia    | 37 20 01 | • <b>Noaua!</b> aldizkaria | 36 03 21 |

# Zer irizten?

## Noaua!

Usurbilgo hamabostekaria

**Argitaratzailea:** Noaua!  
Kultur Elkarte. Kale Nagusia,  
37 - 20.170 USURBIL (Gipuzkoa)  
Tlf. eta faxa (943) 36 03 21.  
e-mail:  
Noaua.mandio@redestb.es

**Zuzendaria:** Olatz Altuna.

**Kazetariak:** Ainhoa Azpiroz,  
Idoia Torregarai, Josu  
Aranberri, Garikoitz Udabe.  
**Kolaboratzaileak:** Pedro Mari  
Matxain, Nere Amenabar, Ines  
Kamino, Leire Atxega, Iñaki  
Labaka, Iratxe Begiristain,  
Begoña Zubiria, Amagoia  
Mujika, Xabier Arregi, Pako  
Agudo, Alfonso Vidal, Nieves  
Aranburu, Luis Aranalde eta  
Zalao Arnaiz **Administrazioa:**  
Arantxa Usarralde, Aitor  
Pikabea eta Nerea Kamino.  
**Erredakzio Kontseilua:** Olatz  
Altuna, Garikoitz Udabe, Jose  
Jabier Furundarena, Iñigo  
Azpiroz, Idoia Torregarai, Josu  
Aranberri, Ainhoa Azpiroz.

**Maketazioa:** Susana

Martin. **Argazkia:** Joxe Antonio  
Labaien. **Informatika:** Pili Liza-  
so. **Banaketak:** Mertxe Jimenez,  
Txelo Vidal eta Iker Muguruza.  
**Elektrikaria:** Iñaki Salsamendi  
**Sukaldaria:** Joxe Mari Sarasola,  
**Tirada:** 2.200 ale

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818

**Inprimategia:** Antza,  
Industrialdea 1 - 2, 20.160  
Lasarte-Oria.

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**PORTADA:** Aginagako hilerriko sarrerako atea. Inskripzioa: "Betiko atsendena eman iezu Jauna ta betiko argiak argi egin bezaie"



## Ordu aldaketa

Arantxa Iribar

### Udarregi ikastolako irakaslea

**U** daran, eguna luzea dugu, kanpoaz gozatzeko aukera ederra izanez.

Eskola hastearekin batera, eguna moztzen hasten zaigula konturatzen gara, eta horrez gain, urriaren bukaeratik aurrera, bat batean ordubete lehenago iluntzen zaigu.

Zenbait mediku eta psikologo-  
ren artean loari zenbait trastor-  
no eragiten dion arrazoia nagusi-  
tzen ari den bitartean, beste  
zenbaiten ustean ez da hain-  
besterainokoa. Hauek, jendea  
egun pare batean errekupe-  
ratzen dela diote.


Hau honela izanik, azken urte  
hauetan, Europako Elkarte  
ordu aldaketaren istorio hau  
bertan behera uztea komeni-  
garria ote den eztabaidatu badu-  
te ere, behin betiko erabakia  
2.001. urtean hartzearen alde  
agertu dira.

Bestalde, energia aurrezten  
denaren arrazoia ere hor dago.

Aurtengo udarako ordu aldake-  
ta honekin 11.000 milioi pezeta  
aurreratu omen ditugu eta  
hauetatik 10.000 milioi gure  
etxeetako argietatik lortu omen  
da.

Eta guk bitartean, zer?  
Eguzkiak banatzen du eguna,  
eta ez dugu ahaztu behar gaua  
deskantsurako egin dela eta  
eguna lana edo bakoitzak  
duen aktibitatea garatzeko.

Ordutegi batera loturik gau-  
denoi aldaketara moldatzea  
errazago egiten bazaigu ere, ez  
dugu txikienen ordutegia zain-  
tzeaz ahaztu behar. Eta hau,  
orain gero baino errazago egi-  
ten dugu. Zeren orain eguna  
moztu egiten zaigu, eta haurrak  
errazago oheratzen ditugu.  
Apiriletik aurrera, ordea, eguna  
luzatuko digute, eta orduan bai  
komeni zaigula haurren erretira  
kontuan hartzea. Deskantsurako  
neguan adina ordu beharko  
baitute.



Usurbilgo Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Usurbilgo Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria

**363**  
**bazkide ditu Noaua!k.**  
**Zu ere egin zaitetz**  
**bazkide**

# i ka-mika

## Makal aluba!

**I**razu kaleko Motzanea izenez ezagutzen dugun Paris berri etxeke atze aldean burutu berria da herriko azken sarraskia. Herriko kaskoan gelditzen zen zuhaitz haundi bakanetakoa eraitsi dute. Kale Nagusiko 2.aren atze aldeko aparkalekuaren gaina edertzen zuen makal bikaina, ez si eta ez no, botea dute.

Garai batean bertan zegoen makalditxo osatzen zutenetik azkenekoa zen makal hau. Etxe atze horretan egin ziren obra batzuk medio, bakar bakarrik gelditua zan gizarajoa. Eta bakarrik sentitzen denaren gisa, beste makalek utzitako hutsunea gogoz hartzen ari zen. Goruntz puja ederrak, Potxoenea edo Arrillagaenea aldera altsuma mardulak... indarrean alegia.

Bainan makala izan eta euskaldunak makalari errespeto arrastorik ere ez! Izen horrekin... Egur ahula eta noiznahi eroriko zela, hostajearen izerdi-lika jarioak kotxeak itsusten omen zituen, orbekak bazterrak zikintzen zituela, udaberria gorri-biziz apaintzen zuten lore-mordo zintzilarioak zimeldu eta erortzean kuxidade ederra gelditzen zela eta... nahi haina aitzeki.

Beldurra diogu inguruko naturari eta itsusia, zikina, eta antzeko arrazioak erabiltzen ditugu oraindik gure inguruko landareetat aritzen geranean. Haritza edo pagoa balitza, beste tratu bat sumatuko luke, baina makala jaio ta izorrai! Motozerra erahiltzailea ipurdira inguratu zaio eta lurrean zegoen enborraren gainean hanka jarri eta,

irrifar errez batez lagunduta, kopeteko izerdia kendu zuen arte ez zen lasaituko baso-mutila. "Makal aluba!" entzun izan beharko zuen gainera, hilzorian, udazkenari harrera egiteko urrezko brusa prestatzen ari zen makalak.

Nork agindu eta baimendu du astakeria hau?

Alperrik ari gera herriko bazterretan zuhaitz zuhaiska eta loreak jartzen, lehendik dauzkagunei eusten ez badiegu.

Motozerra zorrotz eta kopeta kamutsen harrotasuna. Nagusi dala adierazten ez duen gizona, ez da gizona. La putria!

Berriz ere porru-hazi ederrak izango ditugu, bai!

**Jakoba Errekondo**

# xirrikitutik



*Pelotaleku atzeko Zumetaren murla osorik dago orain. Frontoi atzean jarri zutenetik, zenbait pieza falta zitzaizkion, eta 25 pieza horiek egin eta jartzea Bustinzulo zeramika taldearen lana izan da. Joan den urriaren 23an bere lekue-tan jarri ondoren, zeregin berri bat izan dezake murlari begira gelditzen den edo-nork: pieza berriak zein diren asmatzea.*

*Laurok*  
Liburuak eta z

ALPERROBURU KALEA-BEHEA  
201 70 USURBIL TLF 36 34 48

**gorriti**  
EDARITEGIA

**kafe berezia**

ETXE-ALDIA, 1  
TLF 36 27 70

20170  
USURBIL

xabier  
aritegia


- Pintxo aukera bikaina
- Gosari bereziak

Aritzeta, 2 ☎ 36 19 78



## JOSE ANTONIO GORGOJO MARCOS

Tolosarra da sortzez, baina 17 urte ingururekin Usurbilgo Olarriondo auzora etorri zen bizitzera. 42 urte ditu eta Donostiako kiroldegi batean egiten du lan pistina garbituz. Berak adierazi digunez, margotzea da bere denborapasarik gustukoena.



### Nolatan hasi zinen margotzen?

Txikitatik gustatu izan zaidan gauza bat da. Fraileekin klasean nengoenean, beti zirriborroak egiten aritzen nintzen, eta hazten joan nintzen heinean afizioa ere haundituz joan zen.

### Zure kabuz ikasi duzu margotzen edo norbaitek erakutsi dizu?

Denbora dezente nire kabuz aritu nintzen. Beste autore batzuen teknika batzuk hartu eta nire teknikarekin batu... denok bezala. Baina duela urte asko Karlos Zabalarekin hasi nintzen eta denbora asko egon nintzen berarekin. Askok ikasi nuen bertan. Gero, lana dela eta, utzi egin nuen. Baina aurten berriro hasi nahi dut perfektzionatzeko.

### Duela gutxi erakusketa bat egin duzu Lasarteko kultur etxean. Usurbilen noizko?

Lasartekoa egin dudana hirugarren erakusketa da. Lehena lantokian egin nuen, bigarrena Groseko Frudisck dendan eta Lasarten azkena.

Orain nahi dudana kultur etxeetatik mugitzea da, eta ezin daiteke esan Usurbilen lokal askorik dagoenik. Horregatik, inguruko kultur etxeetan mugitzea nahiago dut.

### Koadro asko saltzen al dituzu?

Ez gehiegi. Azken batean, erakusketak ezagutzera emateko gehiago dira. Hala ere, lau bat saldu ditut erakusketetan. Gehienak, ordea, ezagunei eta enkarguz saltzen ditut. Oraintxe Xanti jatetxearentzat koadro bat egiten ari naiz. Hala ere, badirudi jendeari gustatzen zaizkiola nire lanak, askotan aipatzen baitidate zerbait berezia daukatela nire lanek.

### Zer da margotzen duzuna?

Gehienak paisaiak dira, bai mendiak bai itsasoa. Hala ere, erretratoak egiten ikasi nahi dut. Izan ere, izugarrizko inbidia ematen didate kalean bost minutu baino gutxiagotan erretratoak egiten dituztenek. Horregatik hasi nahi dut berriro Karlosekin klaseetan. Gainera, txanpon batzuk irabazteko aukera da.

### Lan egiteko orduan burutik ateratzen dira irudiak ala nonbait ikusitakoak dira?

Batzuk irudimenetik ateratakoak dira, baina lan gehienak beren erreferentzia dute. Egunaren arabera ere izaten da. Batzuetan irudiak etorri egiten zaizkizu bat bestearen atzetik eta etengabe zaude margotzen. Baina egun txarra dudanean oso haserre egoten naiz nire buruarekin. Ez da giro izaten orduan!

### Eta zer iruditzen zaizu Guggenheim museoa?

Zerbait ona izan zitekeela uste nuen, baina badirudi hemengo margolariak "pinturan ere" ez gaituztela ikusi nahi.

### Beti motoaren gainean ikusten zaitugu. Kotxea baino nahiago al duzu?

Bai, dudarik gabe. Ez dakit, kotxea arriskutsuagoa dela iruditzen zait, guztiz itxia da gainera. Nire lehen motoa duela zazpi urte erosi nuen, baina gazte gaztetatik motoan ibili naiz. Garai haietan zenbat moto hartu ote genituen baime-nik gabe!

### Eta pintura eta lanaz gain, zer egitea duzu gustoko?

Ba, gehiena Donostiatik lagunekin paseatzen ibiltzea da. Gainera, pintura munduarekin "engantxatuta" dagoen koadrilarekin ibiltzen naiz, eta primeran pasatzen dugu.

**JUANTXO**  
Burdindegia



Kalenagusia, 10  
Usurbil

37 00 08

**Urtinea Elkartea**



Loreak - Lore landareak  
Lore sortak - Koroak


San Esteban  
Tlf.: 36 22 55

**USURBIL**  
O P T I K A



Irazu kalea, 9-11, 20170 Usurbil  
Tlf. eta Faxa: 37 02 69(Gipuzkoa)

## SANTUENEA



**Alfontso Vidal**

### Santueneako iturriak agortu dira

**A**zken hilabete hauetan zubiaren beste aldeko kontuak izan dira hizpide Santuenean. Atalluko lanak direla, bide berria nondik joango den ikusten dela, lanak ziztu bizian doazela aurrera... kontu ugari, baina denak Oria ibaiaren beste aldean. Oraingoan zubiaren beste aldeaz arituko naiz. Izan ere, santueneatarrok ere **zenbait kexa** baditugu.

Alde batetik, iturriko uraz hitzegin behar, edo hobe esanda, **iturriko ur gabeziak**. Ekainaren 1ean uholdeak izan ziren, urak bereak eta bi egin zituen, baina euri jasa hark urik gabe utzi ditu Santueneako **bi iturri** publikoak. Egun hartatik aurrera ez da ur tantarik erori auzoan ditugun bi iturrietatik. Plazan jolasean ibiltzen diren haurrak iturri ura edatera ezin dute joan. Beste uholde baten zain egon behar ote dugu bi iturrietan ura izateko?

Beste aldetik, **eskubaloiko zelaitik** datorkigu kexa. Eskubaloiko taldeek ez dute ja hemen jokatzeko. Aspaldidanik kiroldegian jokatzeko dutela gauza jakina da, baina Santueneako haur eta gazteen jolasgune izateari ez dio utzi plaza zahar honek. Egunero, eguraldia lagun, baloiarekin jolasten sarritan ikusten ditugu haurrak, eta indarra soberan balute bezala, zelaiaren atzean dagoen parkera askotan botatzen dute baloia. Lehen, hesia bazegoen, eta baloiak ez zituen parkean zeuden pertsonak jotzen. Orain, **bel-durrak egon behar** beti!

## TXOKOALDE



**Iñaki Labaka**

### Txokoaldeko super obrak

**H**asi baziren hasi ziren frontoia berritzeko lanak eta egia esan azkar darraite aurrera. Lurra berritu diote, ezkerreko pareta ere bai, sarearen zati bat jarri diote..., **estalki berria jartzea** bakarrik falta zaie oraintxe. Laister, pelota partiduak jokatu eta txapelketaren bat jokatzeko moduan izango gara.

Bestalde, Akerra gaztetxe aurreko zubia berritu ondoren, **Urdaiaga** joateko betiko



**bidea irekia** dago. Saltxipi aurrean errekarri ubide berria egin diotenez, erreka, bidetik urrunago pasako da hemendik aurrera. Lan ederra hartu dute langileek, erreka berrizetan harrizko hesia jartzen ari baitira. **Dirua bukatzen** ari zaiela ere entzun dugu. Horixe bakarrik falta zaigu, auzoko kaxkora iritsi baino lehen dirurik gabe gelditzea.

Erreka bideratze berriaren lanak osatzeko, guztiz beharrezkoa den aparkaleku berria egitea bakarrik falta zaigu. Lan guztiak batera egitea zaila dela badakigu, baina udalak aspaldi erosi zuen Illunbe sagardotegiaren aurreko zelaia, eta han, kotxe-

ak uzteko aparkalekua egiteko asmoa zuela ere entzun dugu noiz edo noiz.

Aparkalekurik gabe, zenbait unetan **ez da giro Txokoalden**, kotxeak nonbait utzi behar eta tokirik ez. Sarritan, sozietate aurreko bidean, erribera bidean, erreka bazterrean uzten du jendeak, kotxeei eta traktoreei pasabidea oztopatuz.

## URDAIAGA



**Maribi Arrospide**

### Lore eta landareak Santu guztien egunean

**B**aietza eman eta hitza bete beharko. Urdaiagako kronika egiteko eskatu didate, eta ezetza ematen ez dakigunez, hemen nator lore kontuekin. Hitzegin eta lana batera egiten ere ikasi dugu ja. Santu guztien eguna gainean dugunez, **lore sorta eta landareek** zeresan haundia ematen dute egun hauetan. Urdaiagan, Urtinean ez esateagatik, **mugimendu haundia** nabaritzen da. Jendearen joan-etorria etengabea da, eta landare eta loreena ere bai. Pertsona ezberdinak, mota guztietako



jendea, lore eta landare klase ezberdinak eramanez. Hala ere, gauza bat azpimarratu behar dut: lehen lore moztua eramaten zen hilerrira, orain, berriz, **landareak gehiago** eramaten dira.

Bestalde, orain dela urte batzuetako santu guztien eguna eta gaur egunekoaren artean ezberdintasunik bada. Lehen, azaroaren 1a baino lehen, belarra kendu, arritxintarra bota eta gurutzea egiten genuen panteoia txukundu asmoz. Orain, aldiz, **urte osoan zehar nahikoa txukun** mantentzen du norbaitek hilerrira. Honekin batera, lehen, aldamenekoak zer esango beldurak egoten zen jende asko zegoen, eta horregatik, aldamenekoa baino lore dotoreagoak eramaten saiatzea ohikoa zen. Gaur egun, ez. Lore eta landare antzekoak eramaten dira hilerrira.

## AGINAGA



**Iratxe Begiristain**


### Marmitako mundiala Aginagan

**A**ginagako festen ajearekin hainbat kontu ezerezean gelditu zaizkigu aurreko bi aleetan. Festak gora, festak behera, zenbait albiste ezkutatuta, noraezean gelditu dira.

Hasteko, zorionik beroenak **Josefa Ignacia Roteta** eta **Dolores Bengoetxeari**. Urriaren 2an urteroko **marmitako txapelketa** egin zuten Urola-Kostako jubilatua eta pentsionistek. Azpeitia, Azkoitia, Orio,

Aginaga eta Usurbilgo ordezkariak parte hartu zuten Aginagako Arrate egoitzan egin zen txapelketa honetan.

Badirudi etxeko sukaldeak on egin ziela aginagarrei, izan ere, **Josefa Ignacia Roteta** eta **Dolores Bengoetxea** Aginagako bikoteak prestatu zuen marmitakorik goxoena. Ez dakigu zein errezeta erabili zuten, baina ziur gaude sekreturen bat izango dutela. Behin txapelketa amaitu ondoren, senide arteko bazkaria egin zuten partehartzaile guztiek, eta ez nolana hiko gainera: aurrez prestatutako marmitakoaz gain, entremesak, entsalada eta postreaz osatutako menua izan zuten.



Gaiaz erabat aldatuz, ikastaro kontuak jorratuko ditugu segidan. Urtero antolatzen den **eskulangintza ikastaroari hasiera** eman zaio ja. Arrate zahar egoitzara joan daitezke eskulangintzan trebatu nahi duten guztiek. Bolilloak, pintura, makrame eta gantxilloa, aukera zabala eskuak trebatu nahi dituen guztientzat.

Azkenik, urteroko kexa. Piperra biltzeko garaia amaitu da, piperbiltzaile gazteak erriberara ez dira etortzen, baina Intxaurretako autobus geltokiko **markesinaren kristalak apurtuta** utzi dituzte. Urtero berdin. Udaleko langileek kristala jartzten dute, eta udaran, piperbiltzaileek puskatu egiten dute. Gero, autobusa hartu behar dutenak hotza pasa behar!

## KALEBERRI



**Ines Kamino**

### Frontoi inguruko azken lanak egin dituzte

**F**rontoiko estalki berria aspaldi amaitu zuten arren azken detailleekin aritu dira azken bi asteetan. Ezker paretaren atzekaldean dagoen **keramika lanari azken igurtziak** eman dizkioite. Estalkia inauguratu zutenean plaka batzuk ez zituzten jarri, izan ere, ekainaren 1ean izandako uholdeek zenbait plaka izorratu zituzten. Bustinzulo keramika taldeak plaka hauek berriz egin behar izan ditu eta joan den ostegunean, **hilak 23an**, jarri zituzten beren tokietan.

Bestalde, frontoi atzean, Zumetaren muralaren aurrean, **pintaketa lanetan** ibili dira. Irazu nahiz Etxebeste kaleetan kotxeak ez sartzeko zenbait kate jarri zituzten. Guzti honekin eztabaida ugari izan arren, azkenean kotxeei sarrera debekatzea erabaki eta oztopo bezala kate batzuk daude.

Orain, kateen aurrean kotxea uztea debekatu dute. Lehen ez zegoen aparkatzea debekatuta zegoela adierazten zuen seinalerik, orain oinezkoen pasabidea adierazten duten marrak eta **kotxea bertan uztea eragozten duten markak** jarri dituzte.



# H erorrek esan



**Aitor Pellejero**

Kalezar

**D**udarik gabe, sua eman eta erraustea nahiago nuke. Eta ondoren, ahal bada, mendian bota, Andatzan.



**Miguel Hernandez**

Etxealdia

**N**ik nahiago nuke lurperatzea, hilobi soil batean. Hil eta gero ez dut behar panteoi edo antzekorik.



**Mila Añorga**

Kalezar

**N**ik nahiago nuke erraustea eta gero nonbait botatzea. Ez daukat pentsatuta non bota, baina erraustea bai, uste dut hobea dela. Uste dut libreagoa dela.



**Maria Jesus Urretabizkaia**

Atxegalde

**I**ruditzen zait erraustea hobea dela. Nahiago dut gero mendi batean errautsak botatzea. Hala ere, nire inguruan ez dut horrelako kasurik ezagutu.



**Ramon Ugalde**

Atxegalde

**N**iri berdin zait, hil eta gero behintzat... hala ere, nahiago dut lurperatzea, ohituragatik izango da. Eta behin hasiz gero, nahiago panteoian egotea.



**Arantxa Solabarrieta**

Santuenea

**N**ahiago dut lurperatzea. Alde batetik, ohitura jarraitzeagatik, eta bestetik, berpiztea existitzen bada, ea zer egiten duzun hauts bihurtuta! Hori dela eta badaezpada, nahiago lurperatzea.



**Idoia Muguruza**

Txokoalde

**N**iri enterratzeak halako zerbait ematen dit, batez ere txitxareengatik. Horregatik, nahiago nuke errauts bihurtzea. Horrela, mendi batean zabal ditzakete.



**Oscar Rodriguez**

Olarriondo

**N**ik uste dut nahiago dudala erraustea. Usteltzen egotea baino nahiago dut huts bihurtzea. Gainera, ziur oso ondo hartuko nuekeela su! Gero, berdinean zait errauts horiekin zer egiten den, hil eta gero...

**Lb T**  
**HARATEGIA**

Atxega Alde, 34  
Usurbil

☎ 36 57 42



**Kima**

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Xabier Carbayeda eta Goyo Martin

Kale nagusia, 44- behea  
LASARTE-ORIA



TEL. 36 61 97



BAZKARIAK  
ETA AFARIAK

Santuenea 23-  
Tlf. 36 27 34



## Uholdeek sortutako kalteak oraindik ordaindu ezin

**U**holdeak gure herria hankaz gora jarri zutenetik bost hilabete pasa dira. Hondamendiaren ondoren hitz gozoak entzuten ziren leku guztietatik. Orain, ordea, ahaztu dira hitz haiek. Nekazal gune nahiz herrigunean uholdeak eragindako kalteak ezin dira konpondu, dena geldirik dago.

Kalteen balorazioa aspaldi egin zen. Udalak uholdeek eragindako kalteen zerbatekoa bidali zion Foru Aldundiari, hauek horrela eskatu ondoren. Espainiako gobernuak diru kopuru horren %50a ordaindu behar zuen eta beste %50a Foru Aldundia eta udalak bete behar zuten.

Hala ere, dena geldirik dago oraindik. Urgentziazko obrak egin ziren, normaltasuna ezartzeko beharrezkoak ziren lanak, baina gainerantzeko konponketa guztiak geldirik daude. **Jose**

**Luis Arrastoa**, zerbitzuetako zinegotziaren arabera, "abuztuan idatzi bat bidali zuten Espainiako gobernutik. Bertan, konponketa lanak ezin zirela egin jakinarazi zitzaigun". Izan ere, gobernuak bere peritoei bidali behar du kalteen zerbatekoa egiaztatzen. Perito hau orain arte ez da azaldu eta Madrilerako deitu ondoren, oraindik ez dakite noiz etorriko den.

**Jose Luis Arrastoaren** esanetan adjudikazio arazoak daude tartean. "Madrilek %50 ordaindu behar due-

nez, konponketa guztiak estatuak izendutako enpresek egitea nahi du. Foru Aldundiak, aldiz, hemengo enpresei eman nahi dizkio lan horiek. Foru Aldundia eta Madril ika-mikan daude gai honengatik eta hori konpontzen ez den bitartean kaltetuenak berriro gure gara".

Nekazal guneei dagokionez, Usurbil izan zen herri kaltetuenetako bat, 259.500.000 pezetako galarak izan baitzituen. Konponketa lanak, ordea, geldirik daude. Noiz arte?



☞ Oposizio librearen bidez, eta dagozkien frogak egin ondoren, udaleko bi lanpostu finko bete dira. Ploi lurperatzailea **Jokin Otxotorena** izango da eta igeltsero ofiziala **Gorka Ibarrola**.

☞ Udalak, hiru urterako (1997-1999) konbenioa sinatu du langileen oneritziarekin.

☞ Dagokion konkurtsoa egin ondoren, **Mari Karmen Matxain** kontratatu da behin-behingo etxeko zerbitzuan ordezkapenak egiteko. Parte hartu dutenekin lan-poltsa osatu da.

☞ Udalak, edari latak bildu eta birziklatzeko prest uzten dituen bi ontzi jarri nahi ditu.

☞ Hastapen tallerrean pintura ikasten ari direnek, Agerialdeko maixu-etxeko udal etxebizitzak pintatu eta egokitzen ari dira, ondoren alokairuan jartzeko.

☞ Barne promozioa burutu ondoren udaleko lanetan aritu den **Txomin Tolosa** igeltsero ofiziala izendatu dute.

**TABERNA  
JATETXEA**



**ANTXETA**

EGUZKITZA, 4  
TEL: 37 03 44  
20.170 USURBIL



**TABERNA**



Usurbilgo txilborrean  
herritarron topaleku

Irazu kalea, 9  
Tlf: 36 02 17

SERIGRAFIA  
TANPOGRAFIA

**LOSU**  
Ugaldea poligonoa 36 - 2<sup>a</sup> Esk  
Usurbil - Gipuzkoa

37 19 54

INDUSTRI ETa  
IRA GARKI SERIGRAFIA  
KAMISETEN INPRIMAKETA

## Behin betiko atsedena hartzeko zain

**A**zaroaren lehenengo egunean herri guztietako hilerriak aurpegia aldatzen dute. Urte guztian zehar gordetako aurpegi grisa koloretsua bihurtzen da milaka loreek ematen dioten bizitasun berriarekin. Urtean behin bada ere, ia guztiok inguratzen gara leku honetara.

Beharbada, egun honetan hainbeste jende hilerriangora eta behera ikustean konturatzeko gara badirela hainbat urte kanposantua txiki gertatzen ari zaigula. Eta ia guztiok badakigu hilerri berri bat egiteko proiektua badagoela. Ez dakiguna, ordea, noiz egingo den.

Esan bezala, gure herriko kanposantuaren egoera nahikoa juxtua da. **Iker Arrastoa**, Usurbilgo eta Aginagako kanposantuaz arduratzen da, eta berak zera dio: "*Usurbilgo hilerrian nitxoak eraiki behar izan dira, ez zegoelako jada tokirik nahiz eta orain gorpuak zortzi urtera atera daitezkeen. Aginagan gauzak desberdinak dira, hemen ez dago arazorik, lurlean oraindik badago tokia. Horregatik, aurrikusia dago tokirik geldituko ez balitz Usurbilen, Aginagako kanposantura eramatea, erretserba bat izango balitz bezala*".

Noizko hilerri berria?

Eta nola dago hilerri berriaren proiektua? **Joxe Antonio Altuna**, alkatearen esanetan, betidanik ikusi da behar hau, baina 1990. urtean erabaki zen behin betiko non egingo ziren obrak: Maspildegai gain izeneko lur saillean, hain zuzen ere. Lur hauek Agerreko lurretan daude; lehen krematorioa



*Azken urte hauetan herriko kanposantua txiki gertatzen ari da.*

zegoen tokian, eta hortik Atxegalde aldera doan zelaiaren kokatuko da kanposantu berria.

Hasiera bateko proiektua aldatu egin dute kostuak jeitsiaz

Urte berean, hots, 1990. urtean, hilerriaren proiektua lehia-keretara irten zen eta **Luciano Pagegi** izan da proiektuari forma eman diona. Bere maketa ikusgai egon da udal-letxean, eta norbaitek berriro ikusi nahiko balu bertara jotzea besterik ez du. Hori bai, kontuan izan aldaketa batzuk izan dituela hasierako proiektuak, eta maketa honetan ez dira hauek jasotzen.

1994-95. urte inguruan, oraindik hilerri berria ezin zela egin eta toki falta haundia zegoe-

lako, nitxoak egitea erabaki zen. Era honetan, lau urteko arnasaldia izango luke kanposantu zaharrak eta bitarte horretan berria eraikiko litzateke.

Baina egun ikusi dezakegunez, obrak oraindik ez dira hasi eta badirudi oraindik ere pixka bat itxaron beharko dugula. Alkateak adierazi digunez, "*jada lurra erosi ditugu eta aurtengo aurrekontuetan aurreikusten dira. Hasiera batean 5.000 m<sup>2</sup> erosi behar genituen, baina lurren jabeak behin saldu ezkereratu gertatu saldu nahi zuela eta azkenean 12 edo 13.000 m<sup>2</sup> -ko lur saila eskuratu dugu. Hau da, hilerriaren inguruan lur sail ederra ere geratuko da.*"


Diru kontuak gora eta behera

Lehenengo pausoa eman da, baina obrak oraindik behintzat, ez ditugu ikusiko. Izan ere, arazo ekonomikoa

baitago tartean. Joxe Antoniok zera azaldu digu: "Proiektu hau egin zenean, duela sei urte, gutxi gora behera 150 milioi pezetako kostua zuen. Oso lan dotorea zen, eta horregatik erabaki genuen kopuru hori jeitxi zitekeela oinarrizko proiektuaren muina aldatu gabe. Adibidez, hasieran zegoen kapera oso haundia zen eta kostuaren zati handi bat berak eramaten zuen. Horregatik, erretorearekin bilera batzuk egin genituen eta azkenean, kapera sinplegao bat egitea hobe zela erabaki genuen. Bestetik, hasieran kanpoko nitxoak portxe bat zuten aurrean eta guk tejabana batekin jartzea erabaki genuen. Kostuak jeisteko beste era bat materialak aldatzea izan zen. Hasierako proiektuan dena marmolezkoa izango zen, eta guk porlan txuria erabiltzea erabaki genuen. Azkenean, aldaketa guzti hauekin kostu osoa 65 milioi pezetatan jeistea lortu genuen".

Hilerri berria  
Eroski aurrera ateratzen denean  
egingo da

Baina kontuan hartu behar dugu proiektuaren hasierako 150 milioi pezeta horiek duela sei urtekoak direla, hots, proiektua egin zenekoa. Beraz, gaur egun, proiektu berdinak 220 milioi pezeta inguruko kostua izango luke, noski, 65 milioi pezetako jeitsierarekin. Beraz, gaur egun, hilerri berria egiteak ia 153 milioi pezeta inguru balioko luke. "Gainera, Udalak lan batzuk banatuko lituzke egiteko; adibidez nitxoena. Era honetan merkeago aterako litzaiguke. Gutxi gora behera, 130 milioi pezeta inguru", zehazten du



Hilerri berria Maspildegai-gain izeneko lurretan kokatuko da. Lur hauek Agerreko lurretan daude; lehen krematorioa zegoen tokian, eta hortik Atxegalde aldera doan zelaietan.

alkateak.

Aurreikuspenak beteko balira, hilerri berriaren lehen fasea egiten datorren urtean hasiko lirateke. Baina aurreikuspen horretan badago arazo nahikoa larri bat. Izan ere, lehen aipatu dirutza horrek iturri jakin bat du.

Alkateak azaldu digunez, "hilerri berriaren eraikuntza Eroskiko proiektuaren arabera

dago. Hau da, dena ondo badoa, datorren urtean Eroskik izango luke ekonomiko-ki eragin haundiena guretzat. Horrela, diru horrekin egingo genuke kanposantua. Baina arazoa da Gobernuak Eroskiko proiektua atzeratu dezaketela, eta hori horrela balitz, ezingo litzateke hilerria egiten hasi".

Idoia Torregarai

## Limousin arrazako txekor eta behietan nagusi

**Juan Alfuna** usurbildarraren abereek hiru sari irabazi zituzten, joan den urriaren 19an, Tolosan egin zen Gipuzkoako ganadu txapelketaren 28. edizioan. Zelaiaundi baserriko **Juan Alfunaren** abereek, limousin arrazakoen artean eskuratu zituzten sari guztiak. Umerik izan gabeko urte bete eta bi urte arteko txekorrarekin lehen postua lortu zuen, eta berdin 3-4 urteko behiarekin. Hauekin batera bigarren postu bat ere eskuratu zuen beste txekor batek. Gipuzkoa osoko 33 baserritatik ekarrita 120 ganadu buru izan ziren Tolosako txapelketan. Txapelketaz gain, Gipuzkoan jaio eta hazitako 18 txekor saldu ziren 250.000-275.000 pezetatan.



## Eroskiko proiektua kinka larrian



**P**asa den urriaren 20an, astelehena, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamenduko Batzordea Udaleko ordezkaritza batekin bildu zen. Bilera horretan **Eroski eraiki behar den** lurrari udalak eta Foru Diputazioak emandako lur komertzialen kalifikazioa onartu edo atzera botatzeaz hitz egin zen, eta azkenean, Lurralde Antolamenduak atzera bota du proposamena. Orain, erabaki hori Lurraldetasun Planeamendu Partzialekoek hartu beharko dute. Ezezkoa erabakitzen badute, Eroskiren proiektua kolokan egongo litzateke.

## Akanpada Usurbilgo Michelin lantegiaren aurrean

**M**ichelinek Usurbilen duen lantegiko langileek mobilizazioekin jarraitzen dute. Joan den urriaren 20an, lantegiko sarreran **akanpada** bati ekin zioten zenbait langilek, eta egunero, 13.30etatik 14.00etara konbenioa negoziatzeko eskubidea aldarrikatzeko konzentrazioa egiten dute. Langileek konbenioa **negoziatzen jarraitzea** eskatzen diote Michelin lantegiari. Uztailean egin zuten erreferendumean langileen gehiengoak, enpresak aurkeztutako proposamena ez onartzea erabaki zuen eta ordutik hona ez da negoziatorik izan. Akanpadan prte hartzen ari direnak eta enpresa komiteak, lantegiarekin borondatezko kolaborazioak ez egitera gonbidatzen ditu langile guztiak.



# PATRI

## JATETXEA

Eguneko bazkariak  
eta afariak

Nagusia,6  
Tlf 36 27 25

20170 Usurbil  
(Gipuzkoa)

*Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!*

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

**FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER**  
**ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA**

Kale Nagusia, 2 1.C4  
Tlf 37 08 78

20170  
USURBIL

Barruko arropa-iraketa  
etxeko arropak

Aritzeta kalea, 1  
telefonoa: 36 17 87

**BOTA PUNTUBAREN  
PORRA**

**B**ertso txapelketa nagusia dela eta, **Bota Puntuba** bertso eskolak **porra** antolatatu du. Bertan parte hartzeko, bista ona besterik ez da behar finalean parte hartuko duten zortzikotea zein izango den asmatzeko. Porra honetan zure aukera eta apustua egiteko Txiriboga eta Benta tabernetara jo eta 100 pezetaren truke bertan aurkituko dituzu txapelketa honetan parte hartzen duten bertsolari guztien zerrenda.




**A**urten ere, hainbat **igandetan dantzaldiak** izango dira pelotalekuan. Hasteko, azaroaren 9an Akelarre taldearekin dantzatzeko aukera izango da. Hamabost egunera, azaroaren 23an, uda honetan fama ikaragarria hartu duten Alaitz eta Mainerren trikiti doinuak entzun eta dantzatu ahal izango dira. Azkenik, abenduaren 8an Izotz taldearekin azken dantzaldia. Udalak, zenbait tabernen laguntzarekin antolatu ditu dantzaldi hauek.

**EUSKAL MITOEN DIAPO-  
SITIBA EMANALDIA**

**P**atxi Sanz, Aitor Atxega eta Jose Jabier Fernandezek "Euskal Herriko mitoak atzo eta gaur" diapositiba emanaldia ikusteko aukera izan zuten joan den urriaren 14an Udarregi zaharrea bildu zirenek. 20 pertsona inguru bildu ziren Andatza K.K.E-k antolatutako emanaldian; bertan, hiru lasartearek Euskal Herriko kulturaren mitologiak (Mari, Jentilak, Basajauna...) duen garrantzia agertu zuten.



**E**ndika Abril errebote txapelketak egin du aurtengoa. Irailaren erdialdean hasi zen txapelketaren **finalak** azaroaren 1ean jokatu dira **Zubietako plazan**. Aurtengoan ere, iparraldekoak nagusi. **Baiona I** eta **Uztaritz** taldeek jokatu dute finala eguerdiko 11.00etan hasita. Baiona I taldeak 13-2 mendean hartu zuen Hasparrengo taldea. Uztaritzek, aldiz, ez zuen Kaito Harri gaitzitzeko arazorik izan, azken emaitza, 13-7.



**D**onostian jaio arren, Zubietako Ojanguren baserrian bizi izan zen hainbat urtetan. Franko garaian, Frantziara aldegin zuen lehendabizi eta Argentinarako bidea hartu zuen gero. Azken 50 urteak Rio Negrone eman ondoren 15 egunez Euskal Herrian izan da. **Alberto Gonzalez Arregi** da bera. Usurbilgo udalak eta Zubietako herri-batzarrak ikurrina bat eta zenbait liburu oparitu zizkion Araetan eginiko ekitaldi xumean.

viveros  
**Aranburu**

Loreak- Landareak-  
Lore Sortak- Koroak-  
Loragintza

Villa Aingeru  
☎ 36 64 60  
Aginaga



ZUMET A  
JATETXEA

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

**ZUMET A MENUAK**

(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Itsaskientsalada hozber oatrufa zaporez
- Zapoatxangurr ozbeteriketaitzaski saltsaz
- Aspizunapatata pur e, onddo eta pikilopiperraz haragi saltsatan
- Etxeko azken buruko endegustazioa
- Ardo berezia eta kafea

3.200 pta.

**BARATZA**  
**FRUTADENDA**

*Aukera zabala  
zure eskura*

Eguzkitza, 4 USURBIL  
Tlf. 36 49 81

## KIROL KOPLA



**Xabier  
Arregi**

**A**zaroaren 2an jokatu da, eguraldi txarrik ez bada, erreboteko txapelketaren final nagusia Zubietan. Iparraldeko eta hegoaldeko pilotariak biltzen dituen txapelketak aurten hamar boskote izan ditu partaide. Partidu guztiak Billabonako eta Zubietako plazetan jokatu dira irailaren lehen astebukaeratik hasita, eta, eguraldia lagun, atzerapen haundirik gabe heldu da finaleko eguna.

Igandean Baiona I eta Ustaritz izango ditugu nor baino nor txapelaren bila. Denon gogoan zeuden taldeak iritsi dira finalera. Gaur ez dago bi horiei eraman-go dienik, ez plaza luzean, ez plaza motzean. Baionakoek heldutasun handia dute eta teknikoki oso onak izateaz gain, ederki ezagutzen dituzte errebotearen alderdi taktiko guztiak. Sen bereziak, kintzea bukatzen dakitenak eta irabazle petoak ditugu Baionarrak.

Ustaritzek talde gaztea du, baina ez eskarmenturik gabekoa. Dagoeneko erakutsi dute primeran moldatzen direla Zubietako plaza motzera: orain dela bi urte, gogora dezagun, txapeldun izan ziren. Irabazteko grina eta sasoa dituzte beren aldeko. Une zailetan burua hotz mantentzen badute argi pelotari gazte hoiekin.

Iparraldeko finala errepikatuko dela kontutan izanda, errebantxaren itxura du igandeko partidua. Orduan Baiona izan zen nagusi, igandean auskalo. Baina hori bai ikuskizun polita eskainiko digute.

Igandeko finalaren atariko, Gipuzkoako errebote-txapelketaren finala jokatu da larunbat eguerdian Billabonan. Finalistak: Zubietan I eta Billabona I. Lehia handia dagoela bi talde gipuzkoarren artean eta partidua interesgarria izango da. Astebukaera bete-betea, hortaz, errebotea maite dugunontzat.

## Eskolaz kanpoko kirola

**A**zken urte hauetan kirola ezinbesteko eginbeharra bihurtu da haurrentzat. Eskolaz kanpoko kirol ihardueran parte hartzen duten ikasleak gero eta gehiago izateaz gain, kirol eskaintza honi uko egiten dioten ikasleak apenas aurkituko ditugun Usurbilen.

Beti ere, kirol aniztasuna du oinarri eskolaz kanpoko eskaintzak. Ondo pasatzeaz gain, elkarlana, errespetua eta lagun giroa bezalako baloreak lantzen dira. Ikasleak entrenamendu nahiz partiduetara joaten, entrenatzailearen esanak betetzen eta epaileen erabakia onartzen ikastea da kirol zerbitzu honen helburua.

Txikienek jolasezko ekintzak egiten dituzte urtean zehar. Lehiaketa kutsua ahaztu eta eguneroko bizitzan balio handia duten kirol modali-

tate edo teknikak ikasten dituzte. Udarregi ikastolan, 1. eta 2. mailakoek psikomotrizitatea eta kirol jokua landuko dituzte eta 20 ikasle inguruk eman du izena. 3. eta 4. mailan, berriz, kirol ezberdinetan aritzeko aukera izango dute bertan parte hartuko duten 42 ikasle.

5. mailatik aurrerako haurrentzat, heziketa eta jolas izaera duten lehiaketa jarduerak antolatzen dira. Kirol aukera handia da: areto futbola, futbol handia, esku-baloia, saskibaloia, igeriketa, judo, karate, gimnasia erritmikoa, mahai tenisa, mendi-zaletasuna eta txirindularitza. 5. eta 6. mailako ikasleek urte osoan zehar gutxienez, bi kirol egin behar dituzte. DBHko ikasleek, aldiz, kirol bakarrean aritzeko aukera dute.

**Josu Aranberri**



Buru-azalar enzainketa  
Ile-apainketa

*Etxebeste, 3*

*Tel. 37 16 85*



*Skaitz*

**Bideo eta Argazki**

Usurbil

tlf 36 14 87

oiartzun



*Kale Nagusia, 2*

*Tel. 36 59 43*

## Berdintasunaren alde lanean

**J**ulian Udabe duela sei urte Irungo irakasle postua utzi eta Bolibiako lurretara joan zen bertan bizi duten egoera latza gainditzeko laguntzeko asmoz. Usurbildar hau, ja ez dugu gure artean, baina berak hasitako lanak aurrera dirau.

Irpa Tayka proiektua Bolibiako La Paz hiriburuaren inguruan biltzen diren 27 komunitateetako 100.000 indiar aymarari zuzenduta dago. Bertan, nekazal garapena, hezkuntza zentrua, osasuna, emakumearen berdintasuna eta nekazarien antolaketak lantzen da.

Julian Udabe izan da lan haundi hau aurrera atera duena orain arte, horregatik, bere heriotzak kolokan jarri zuen proiektua. Kinka larri hau ikusita, Irungo "Taupadak" ONGak hartu zuen proiektua aurrera ateratzeko erabakia. Izan ere, azken bi urte hauetan lotura haundia sortu baita Julian eta elkarte honen artean.

Diru beharra aurrera jarraitzeko

Baina ia toki gehienetan bezala, hemen ere dirua behar da lana aurrera ateratzeko. Hori dela eta, "Taupadak" elkarteak Julianen senitartekoekin harremanetan jarri zen Usurbilen zerbait egin zitekeen galdetuz. Hauek, **Guraso Eskolari** egoera azaldu

eta honek Julianek egindako lana guri azaltzeko bere gain hartu du.

Emakumearen aldeko apostua

Guraso Eskolaren esanetan, "Julianek guztiaren gainetik berdintasuna lortu nahi zuen. Izan ere, mutilek ikasketetan aurrera jarraitzeko aukera zuten bitartean, neskek 10-12 urterekin lanera joan behar baitzuten. Horregatik, urtean 80 beka sortu zituen neskek ikasketak jarraitzeko". Guraso Eskolak adierazi digunez, gainera, oso estimatua zen Julian: "Julian oso maitatua zen han; orain arte proiektuak Irpa Tayka izena zuen, baina orain indiarrek izena aldatu eta "Julian entre nosotros" jarri diote".

Hauxe izango da proiektu

honen helburua, hots, aurten 800.000 pezeta lortzea 80 neskek beren ikasketak jarraitzeko. Baina Guraso Eskolak aipatzen duenez, ez da hori beraien helburu nagusia: "Gure asmoa, dirua biltzea baino gehiago Julianek egiten zuen lana ezagutzera ematea da".

Hala ere, proiektu honetan interesatua dagoen edonork edo bere laguntza eman nahi dutenek, **Euskadiko Kutxako** zenbaki honetan egin dezake: **0650032000**. "Ziur egon dirua esku onetara iritxiko dela. Orain proiektua Julianen oso lagun min baten eskuetan dago eta dirua bere bitartez iritsiko da Bolibiara". Beste inork informazio gehiago nahi badu, Guraso Eskolarekin harremanetan jar daiteke: 36 41 80 telefonoan.



Julianek sei urte pasa zituen aymara indiarren bizimodua hobetu nahian Hau eskertzeko, proiektuari izena aldatu eta "Julian entre nosotros" ipini diote.



**TXIRIBOGA**  
**TABERNA**

pintxoak, bokatak  
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 - Tlf. 37 00 13

**MAHUKA**



**GAZTE DENDA**  
**Módako arrop**  
**neguaren atari**

Etxebeste kalea, 3 - Tlf. 36 11 06

## Bustinzulotik kalezarrera bide berria

**B**ustinzuloko eraikuntza lanak aurrera doaz piskanaka-piskanaka. Joan den urtean Eguzkitza baserria bota eta berehala ekin zioten lanari. Orain, berriz, Bustinzuloko lehen fasea amaitzekotan izateaz gain, ja ekin diote bigarren faseari.

Usurbilgo sarrera erabat aldatu da azken urtean. Lehen, "mataderi zaharra" edo Eguzkitzako zelaia zegoen hartan bi bloke haundi ikusiko ditugu orain. Lehen fasean egindakoak dira biak. Guztira 27 etxebizitza izango dituzten bi bloke hauen eraikuntza lanak oso aurreratuta daude ja. Gabonetarako amaitzea espero dute eta etxebizitza gehienak salduta daude. Azpian, aldiz, 117 ibilgailu sartzeko aukera izango da, erai-

kuntza lanak hasi zirenean bi solairutan banatuta garajeak egin baitzituzten.


Bigarren faseko lanak ere aurrera doaz. Udalak irailean obrak egiteko baimena eman ondoren, denborarik galdu gabe, Eguzkitzaldearen parean 42 etxebizitzaz osatutako blokea egiten hasi ziren. Bloke honek lau portal izango ditu eta 42 ibilgailurentzako garajea.

Bustinzulon hiru bloke hauek egiteak urbanizazio aldaketa haundiak ekarriko ditu:

Alde batetik, kalezarrera joateko bidearen zati bat eraikiko da. Oraingo bidetik joan beharrean, amaitzeako dauden bi blokeen atzean egingo duten bidetik sartu beharko da kalezarrera, Illarramendi

paretik hain zuzen ere. Hala ere, bide hau gauzatzeko itxaron egin behar. Bustinzuloko lanen barnean bidearen zati bat eraikiko dela aurreikusitaren, bigarren zatia, Illarramendi aurrean egin behar dituzten 20 etxebizitzako bi blokeen proiektuaren barruan sartzen da, eta obra honen plan partziala onartu gabe dago oraindik. Beraz, bide hau egitean, egun erabiltzen den bidea ezerezean geldituko da.

Beste aldetik, Bustinzuloko etxeen artean parke bat egingo da. Parkea batez ere zelaia izango da, zuhaitzak ere egongo dira, eta hondarrarekin hondartza txiki baten antzeko zerbait egiteko asmoa dute.



San Esteban kalea, 1  
Usurbil Tlf 36 00 80



Aginaga  
☎ 36 27 73

BEREZITASUNAK  
**SEKAÑA** Txerrikumea,  
Tuleta eta Arraia

ZENDOIA - ENEA

 TABERNA 

*Goizeko 7atik irekia*

Gosariak, hamaitakoak,  
eguneroko menuak eta  
bokatak

Kale Nagusia, 25 Tlf. 36 25 60



# Lehiaketa

Ilbilian-ibilian ustekabeko gauzak topatzen dira eta oraingo honetan pasabide honekin egin dugu topo.

## Ba al dakizue non dagoen lurraspiko pasabide honen sarrera? Eta nora irteten da?

Baldin badakizue, denbora gehiago galdu gabe hartu boligrafoa eta papera, idatzi erantzuna eta utzi Kala Nagusiko gure buzoian.

Asmatzaileen artean bi pertsonentzako afaria zozketatuko dugu **Zumeta** jatetxean.



Pozik etorri zen **Joxe Aburuza Bordatxora** argazkia ateratzera. Eta **Bordatxoko** sukaldariaren jakiak probatzeko ere gogoz agertu zen.

Gehienok zuzen ibili zarete eta badakizue Markesaneko zuhaitz haundia zein zuhaitz mota zen: **Pago gorria.**

Erantzun zuzenen artean zozketa egin ondoren, **Sekañako** jatetxeko afaria **Kittin Segurolari** egokitu zaio.

Zorionak!

# Komikia



Aitziber Elortza

**PORTUARRUNE**

**ITURGINDEGIA  
BAINUKO  
ALTZARIAK**

Kale nagusia, 2-2-2D  
Tlf. Denda 36 46 37  
Etxea 36 52 99



**BORDATXO**  
edaritegia  
PINTXO BEREZIAK  
ETA AUKERA ZABALA

Aritzeta, 2

Tel.: 37 10 42

**ORBELDI**

**MARKEL OLAIZOLA**  
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



**GENERALI**  
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak  
zure zerbitzurako

Aritzeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07  
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

# A genda

## URRIAK 31 ostirala

- **SENIDEAK-en manifestazioa.** Arratsaldeko 20.00etan.

## AZAROAK 1 larunbata

- **Uriberri-berriko teila-labearen inauguraketa ofiziala** egingo da bertan, eguerdian.
- **Tforttorrianeko afaria** betiko tokian betiko orduan eta beti bezala.
- **Udarregi bertsolariaren** 100. urteurrena ospatzeko ekitaldietan erabili zen logoa **eskultura** bihurtu eta **frontoiko ezker pareteko** kanpoaldean jarriko da, Eguerdi aldera.

## AZAROAK 3 astelehena

- **Euskal Herria askatu!**-ren konzentrazioa arratsaldeko 20.00etan errotondan.

## AZAROAK 4 asteartea

- **Zeraingo herriaren proiektuaren hitzaldia.** Hizlariak Jakoba Errekondo eta Andoni Alustiza. Arratsaldeko 20.00etan Udarregi Zaharrean.
- **Usurbilgo Odol Emaileak** jakinarazten du gaur, arratsaldeko **19.00etatik 21.00etara odola eman** ahal izango dela **anbulategian**.

## AZAROAK 9 igandea

- **Udalak, Txiriboga, Benta, Irrati, Xabier, Antxeta, Aitzaga eta Zendoiaenea** tabernek antolatuta, **Akelarrekin dantzaldia.** Arratsaldeko 18.00etan herriko plazan.

## AZAROAK 10 astelehena

- **Euskal Herria askatu!**-ren konzentrazioa arratsaldeko 20.00etan errotondan.

Aitzaga Elkarteak Udalaren laguntzaz, **3. Eskulangintza Azoka** iantolatu du **egun osorako frontoian**. Bertan, ezta, piperrak, lur-taila... eta beste hainbat gauza ikusi ahal izango ditugu. Eta Sagardo Egunaren Lagunak elkarteak herriko 50 sagar desberdinen erakusketa eta herriko tolaeren argazki lehiaketa antolatu ditu. Taloak eta zizarra ere dastatzeko aukera izango dugu, besteak beste.



## OHARRAK

- ✓ **EHNE sindikatuak** langabetuei zuzendutako **"Nekazaritza eremuetako garapenari buruzko ikastaroa"** antolatu du **urriaren 23tik azaroak 14ra** bitarte. **Ikasle kopurua mugatua** da, eta **dohainekoa**. **Tolosan** emango da. Informazio gehiago 65 35 90 edo 65 35 67 telefonoetan. Xabier.
- ✓ **Etxe bat alokatzen** da, altzariak eta guzti. Kontzejuzarra kalean. Deitu 37 14 59 telefonora.
- ✓ **Garajea salgai** daukat Kaleberrin. Interesatuok, deitu 36 41 80 telefonora.
- ✓ **Pisu bat alokatzeko** Bilboko alde zaharrean. Unibertsitateko autobusetik gertu dago. 37 31 17 Uxo.
- ✓ **Pisua salgai** da Santuenean. Deitu 36 04 46.
- ✓ **Garajea salgai daukat** Galtzaragañan. 33m<sup>2</sup>. Kostu prezioan. Telf. 37 18 27.

## LANPOSTUAK

- ⇒ **Soraluzeko Udalak administrari laguntzaile bat** behar du. Aurkezteko epea azaroaren 7an amaitzen da. Informazio gehiago Soraluzeko udaletxean edo

GAOko 193. zenbakian.

- ⇒ **Gipuzkoako Foru Aldundiak 12 suhiltzaile** behar ditu. Eskerak aurkezteko epea azaroaren 7an amaitzen da. Informazio gehiago GAOko 193. zenbakian.
- ⇒ **Gipuzkoako Foru Aldundiak suhiltzaile, erreskate lan eta prebentzio zerbitzuko lau kabo** behar ditu. Eskerak aurkezteko epea azaroaren 7an amaitzen da. Informazio gehiago GAOko 193. zenbakian.
- ⇒ **Bergarako Udalak kimiko bat** behar du. Eskerak aurkezteko epea azaroaren 13an amaitzen da. Informazio gehiago GAOko 197. zenbakian.
- ⇒ **Bergarako Udalak zoologo bat** behar du. Eskerak aurkezteko epea **azaroaren 13an** amaitzen da. Informazio gehiago GAOko 197. zenbakian.
- ⇒ **Usurbil eta Orio bitarteko N-634 karreterako sarea konpontzeko langileak** behar dira. Informazio gehiago 48 23 66 telefonon edo GAOko 189. zenbakian.
- ⇒ **Emakume batek jate txeren batean platerak garbituko lituzke.** Aste egunean goizez eta igandetan egun osoz. Telf 36 57 81.

BITXITEGI  
ARREGI  
ORDUKARI



Kale Nagusia, 2  
Tlf. 36 40 58

# SALTXIPI



Txokoalde, z/g  
Usurbil

Tlf. 36 11 27 - 37 10 94



# Kirol agenda

## AZAROAK 1 larunbata

- **Gipuzkoako Errebote Txapelketa** ren finala Billabonan jokatu da. **Billabona I- Zubieta II.** Goizeko 11.00etan.
- **Eskubaloi partidua** jubenil mailan (N): **Usurbil- Elgoibar.** Goizeko 10.00etan Oiardegi kiroldegian.
- Bigarren nazionalako **eskubaloi partidua** (M): **Usurbil- Ereintza.** Goizeko 11.30etan Oiardegi kiroldegian.
- **Fronteniseko txapelketa.** Arratsalde partean.
- **Saskibaloiko partidua** (M): **Niessen- Usurbil S.T.** Erreterian, eguerdiko 12.00etan.

## AZAROAK 2 igandea

- **Endika Abril Errebote Txapelketaren finala** jokatu da Zubieta plaza. **Baiona I- Ustaritze.** Goizeko 11.00etan.
- **Futbol partidua** erregional mailan (M): **Usurbil F.T.- Urnieta K.E.** Harane futbol zelaian
- **Futbol partidua** kadete mailan Zizurkilen(M): **Amaroz K.E.- Usurbil F.T.**
- **Futbol partidua** (N): **Aloña Mendi K.E.- Usurbil F.T.**
- **Futbol partidua** jubenil mailan (M): **Usurbil F.T.- Martutene K.E.** Harane futbol zelaian
- **Hondartzako futbol partidua** (M): **Aginaga Sagardotegia- Bocatta.**

## AZAROAK 7 ostirala

- **Eskuz 4 t'erdiko txapelketa.** 20.00etatik aurrera.
- **Areto futboleko partidua** (M): **Xabier Edaritegia- Ondarre.** Oiardegi kiroldegian, ilunabarreko 20.45etan.

## AZAROAK 8 larunbata

- **Eskubaloi partidua** kadete mailan (M): **Usurbil- Pulpo.** Arratsaldeko 16.30etan.
- **Eskubaloi partidua** jubenil mailan (M): **Usurbil- Pulpo.** Arratsaldeko 18.00etan.
- **Fronteniseko txapelketa.** Arratsalde partean.
- **Futbol partidua** (N): **Usurbil F.T.- Almen K.E.** Harane futbol zelaian

## AZAROAK 9 igandea

- **Futbol partidua** erregional mailan (M): **Alde Zaharra K.E.- Usurbil F.T.**
- **Futbol partidua** kadete mailan (M): **Usurbil F.T.- Orioko F.T.** Harane futbol zelaian
- **Futbol partidua** jubenil mailan (M): **San Patricio A.C.D.I.- Usurbil F.T.**
- **Saskibaloiko partidua** Oiardegi kiroldegian. **Usurbil- Alde Zaharra B.** Goizeko 10.00etan.

## AZAROAK 14 ostirala

- **Eskuz 4 t'erdiko txapelketako final laurdenetako partiduak.** Arratsaldeko 20.00etatik aurrera.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

#### Urriak 17-18

Roteta B **5** - Usurbil F.T **4** (2.R.)  
 Zarautz **1** - Usurbil F.T **0** (n.)  
 Usurbil F.T **1** - Gazteak **2** (1.ju.)  
 Hernani **4** - Usurbil F.T **1** (ka.)

#### Urriak 25-26

Kostkas **1** - Usurbil F.T **6** (2.R.)  
 Usurbil F.T **0** - Bergara **5** (n.)  
 Amaiak Bat **1** - Usurbil **1** (1.ju.)  
 Usurbil **6** - Lasarte Oria **1** (2.ka.)

### ESKUBALOIA

#### Urriak 17-18

Usurbil **30** - Escolapios **24** (2.N.)  
 Usurbil **25** - Askartza **20** (ju.m)  
 Usurbil **14** - Askartza **17** (ka.m)

#### Urriak 25-26

El Pilar **25** - Usurbil **28** (2.N.)  
 Corazonistas **26** - Usurbil **22** (ju.m)  
 Corazonistas **26** - Usurbil **13** (ka.m)

### SASKIBALOIA

Uztapide **67** - Usurbil S.T **30**  
 Usurbil S.T. **38** - Kevian Sport **89**

### ARETO FUTBOLA

Xabier Edar. **2** - Umore Ona **2**  
 Adarra Past. **2** - Xabier Edar. **2**

### ERREBOTEA

**Endika Abril. Finalerdiak**  
 AVR. Bayonnais- Hasparren, **13-2**  
 Kapito Harri- Zaharrer Segi, **13-6**  
**Gipuzkoako txapelketa**  
 Behar Zana- Zubieta II, **13-5**  
 Zubieta I, Behar Zana, **13-5**

### Laburdurak

R.: erregionalak      ka.: kadeteak  
 N.: nazionala        n.: neska  
 ju.: jubenila         m.: mutilak

kalezarra  
karrozeria



Txapa konponketa eta kotxe pinake  
 Ugaldea industrialdea  
 USURBIL      Tel. 37 2609

"apelliduak abizendu"  
 Guk lagunduko dizugu, zatoz guregana!



Kale Nagusia, 37 - Tel. 36 03 21



EUSKARAREN AHOLKU  
 BATZORDEA



EUSKAL HERRIAN  
 EUSKARAZ  
 84 postakutxa  
 Usurbil

GONZAI  
 EHORZKETAK



Era guztietako  
 zerbitzuak  
**EGUNEKO**  
**24 ORDUETAN**  
 Olarriondo, 5 - 8  
 ☎ 36 21 63